

---

## VI. EUSKAL HERRIKO FRISOI TXAPELKETA

(2014.11.27)

Aurtengoan ere Euskal Herriko Frisoi Txapelketa antolatu zen Tolosako Ferialekuan.

VI. Euskal Herriko Frisoi Txapelketa antolatu dutenak oso balorazio positiboa egiten dute helburuak bete direlakoan. Alde batetik, lehiatutako animaliak genetika handikoak ziren, eta bestetik, esne sektorean lana egiten dugunon topagune bilakatu zen.

Maila handiko animaliak lehiatu ziren eta Nafarroako PLANILLO ustialekuko PLANILLO BOLTON ROHUS behia izan zen behi txapeldunen txapelduna.

Bigen atalean, Igeldoko (Gipuzkoa) Ondazarte Gaineko, ONDAZARTE GAIN STANLEYCUP HASANIA nabarmendu zen.

Sariak ematen Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria, Gipuzkoako Frisoi Elkarteko Presidentea, Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Diputatua eta Nekazaritzako Zuzendaria, Tolosako Alkatea eta Kulturako Zinegotzia eta Aberekinako Kudeatzailea egon ziren. Ikus sari banaketa

Eguna borobiltzeko biga bat zozketatu zen, Gipuzkoako Agerre (Urretxu) baserriari tokatu zitzaiona, eta bazkari bat antolatu zen babesle, laguntzaile, ganaduzale eta antolatzaileentzako.

VI. Euskal Herriko Frisoi Txapelketako egitarauaren baitan EAeko Abere Ustiategien Txapelketako sariak banatu ziren bertan.

BEHIEN TXAPELDUNA

PARTEHARTZAILEAK

---

EUSKADIKO ESNE BEHI USTIALEKUEN TXAPELDUNA

GIPUZKOAKO ARDI USTIALEKU TXAPELDUNA

BIGEN TXAPELDUNA

GIPUZKOAKO HARAGI USTIALEKUEN TXAPELDUNA